

OÑATIKO UDALA

DEIALDIA: OÑATIKO UDALEKO UDALTZAINEN HAUTAKETA-PROZESUA

(Esp. Zk.: 2024AOPE0003)

Azterketa teorikoaren gaineko informazio-oharra

Informazio ohar honen bitartez Oñatiko Udalak hurrengo jakinarazten die Oñatiko Udaleko Udaltzainen hautaketa-prozesuan parte hartuko duten izangaiei:

Oposizioaren laugarren (teorikoa) azterketaren inguruko argibideak argitaratzen dira:

AZTERKETA TEORIKOA

- **Eguna: Apirilak 9**
- **Ordua: 9:30**
- **Lekua: Eltzia Eraikina. Musika Eltzia sarreran batuko dira hautagai guztiak, igogailua dagoen lekuan. Zehatzago izateko, Eltzia tabernako beste muturrean.**

Azterketa teorikoak, test modukoak, 50 galdera izango ditu eta erreserbako 5.

Gaizki erantzundakoek ez dute penalizaziorik izango da eta proba hau gainditzeko 100 puntutik 50 atera beharko da.

Azterketa egiteko denbora ordu batekoa izango da. Amaitzean, eskua jaso eta zaintzaile bat joango da azterketa jaso eta gordetzera.

Izangaien batek behar bereziren bat baldin badauka azterketa egiteko, jar dadila harremanetan azterketa eguna baino lehen Oñatiko Udaleko Pertsonal Sailarekin: pertsonala@onati.eus helbide elektronikora idatziz.

AZTERKETA EGUNEAN

1. Azterketa teorikoa goizeko 9:30etan hasiko da. Ateak 9:00etan irekiko dira eta 9:25 itxi.
2. Izangaiek NANA, pasaportea edo gidabaimena, eta boligrafo beltz edo urdina (errotuladorea ez dena) eraman beharko dute ariketara.

AZTERKETA EGITERAKO UNEAN:

1. Telefono mugikorrak eta bestelako gailu elektronikoak itzalita eduki behar dira (ez isilik, ez hegaldi moduan).
2. Ezin da eraman erloju adimendurik.
3. Hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira ariketak irauten duen bitartean erabiltzeko moduan dagoen sakelako telefonoren bat edo beste edozein gailu elektroniko daramatzaten izangaia, Interneterako edo beste gailu batzuetarako konexioa duten gailu elektronikoak.
4. Ezin izango da belarritako tapoirik erabili.

5. Gelan erabateko isiltasuna egongo da. Gainerako izangaiekiko jokabide desegoki edo gogaikarria izateak eraikinetik kanporatzea eta hautapen prozesutik baztertzea ekarriko du.
6. Izangaiek mahai azpian utzi beharko dituzte gauza pertsonalak.
7. Ariketak irauten duen bitartean, izangaiek mahai gainean honako hauek soilik eduki behar dituzte: jarraibide orria, azterketa, bertaratze ziurtagiria, erantzun orria, boligrafo urdin edo beltza eta NANA, zeinak une oro ikusteko moduko leku batean egon behar baitu.
8. Zalantzarik izanez gero, izangaiek eskua altxatu eta zaintzaile baten laguntza eskatu behar dute.
9. Zaintzailearen eta epaimahai kalifikatzailearen jarraibideak bete behar dituzte uneoro izangaiek. Hala egin ezean, eraikinetik kanporatu eta hautaketa prozesutik kanpo geratu ahal izango dira.
10. Azterketa ezingo da eraman, erantzun orria eta azterketa bera dagokion gutunazalean sartu eta entregatu beharko dira.
11. Beste erantzun-orri bat behar izanez gero, eskua altxatuko da eta laguntzaile batek emango dizu, betiere proba amaitzeko 10 minutu baino gutxiago falta ez badira.

Oñatin, dokumentuaren sinadura elektronikoaren egunean

Epaimahai Kalifikatzaileko idazkaria